

Sareak European Garapen ereduak aztergai Bilbon

Zenarruzabeitia: «Europaren garapenean euskaldunok badugu zer esanik»

AHTren Aurkako Asanbladako kideek eten egin zuten mintegiaren hasiera ekitaldia

Itziar Bilbao / Bilbo

Europako Mugimendua-
ren Euskal Kontseiluak
antolatu mintegia atzo
hasi zen Bilboko Euskal-
duna jauregian. Larunba-
ta bitartean Europaren
garapena izango dute az-
tergai politikari eta adi-
tuek. Atzo, hasiera ekital-
dian, euren errefusa azal-
du zuten AHTren Aurkako
Asanblada eta Ekologis-
tak Martxan taldeek.

IDOIA ZENARRUZABEITIA
EAEko lehendakariordeak hi-
tza hartu zuenean, AHTren
Aurkako Asanbladak eta
Ekologistan Martxan taldeak
pankarta bana zabaldu eta
mintegiaren eta oihuka hasi
ziren abiadura handiko tren-
naren aurka. Protesta ekintza
horrek ez zuen tirabira handi-
rik sortu. Bospasei minutuz
ekitaldia eragotzi ondoren,
zinpeko hiru guardiek alde
egiteko agindu zietenean,
ekologistek Euskalduna jau-
regiko sarrerara eraman zi-
tuzten euren pankarta eta al-
darrikapenak.

«Ez dira moduak»

Aretoan ziren entzule eta gon-
bidatuen artean batzuek gai-
tzetsi egin zuten ekintza. Ho-
rixen bera egin zuen Zenarru-
zabeitia: «Europaren zehar
hasi zenean. Lehendakari-
ordearen esanetan, «iritzi guz-
tiak dira zilegi, eta honako
hau dugu, hain zuzen, horiek
guztiak eztabaidatu eta kon-
trajartzeko gunea, baina gaur
hemen ikusitakoak ez gara-
matza inora».



XOUSA SIMAL

AHTren kontrako salaketa gogorarazi zioten ekologistek Zenarruzabeitia lehendakariordeari.

Mintegiaren xedea gogora-
tuz, honela mintzatu zen Ze-
narruzabeitia: «Europaren ze-
har batetik besterako sareak

dearen esanetan, «iritzi guz-
tiak dira zilegi, eta honako
hau dugu, hain zuzen, horiek
guztiak eztabaidatu eta kon-
trajartzeko gunea, baina gaur
hemen ikusitakoak ez gara-
matza inora».

eta Europako Batasunaren
eredu federala Euskaditik
ikusita, Europaren garapena
ezin da ardatz diren estatuen
kanpoalde edo ingurura mu-
gatu; aitzitik, batasuna mo-
du orekatu eta proportziona-
tuan egin behar da, eta zere-
gin horretan euskaldunok
badaukagu zer esanik».

Imanol Bolinagak, EMEK

erakundeko presidentea,
Europaren garapena zelan
ordainduko den aztertu be-
harra dagoela esan zuen.

Are gehiago, azpiegituren
garapena ingurugiroaren de-
fentsarekin bateragarri izan
dadin eta herritarrek errefusa
ez dezaten zelan egin behar
den ere erabaki beharko dela
gaineratu zuen.

Gorostiagaren eta
sindikatuaren kritika

■ «EUSKAL HERRIAN,
Europaren bezala, inguru-
giroaren gaineko hitz ede-
rrak bai, baina erabaki
politiko gutxi hartzen
dute agintariekin». Horixe
salatu zuen Koldo Goros-
tiaga eurodiputatu aber-
tzaleak mintegian eginda-
ko agerraldian. Hamabost
minutu besterik ez zuen
izan Gorostiagak mintegi-
ko iritzi ofizialarekin bat
ez datozen argudioak
defendatzeko.

Ildo horretan, bat etorri
zen Ludwic Krämer ira-
kasle alemaniarrek duela
sei bat urte plazaratutako
tesiarekin. Horren arabe-
ra, ingurugiroak kimika
edota automozio enpre-
sen interesei traba egin
izan dienean —AHT, ka-
su— «beti nagusitu da ka-
pitalaren ikuspegia».

Ez da hori izan mintegi
honen kontra jaso den iri-
tzi bakarra. ELA, LAB, Hi-
ru eta EHNE sindikatuek
ere gogorki salatu dute
ekimena, euren ustez
Gasteizko Garraio sailbu-
ru Alvaro Amannek sortu-
riko «aztikeria» besterik ez
delako ekimena.

Sindikatuon esanetan,
Amannek «bere trenbide
ereduarekin kosta ahala
kosta aurrera jarraitzeko,
gizartean izan ez duen ba-
besa halako foro institu-
zional handi-mandietan
bilatuz, nahiz eta horreta-
rako mintegian bertan di-
sidentean ahotsak mini-
moetara mugatu behar
izan».

prozesu demokratiko baten alde
Euskal Herriak du hitza eta erabakia

**EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA
kalera!**



750 gose grebalari

